

- **Funtsezko elkarteak:**

Gure enpresan baliabideak eskuratzeko hainbat aliantza sortuko ditugu, zenbait enpresarekin. Hala nola, hornitzaile batzuekin, hauek gure produktuak eramango dizkie bezeroei eta horrekin banaketa zerbitzua beteko da. Pertsonekin elkarteak ere egingo ditugu, haiek erabiltzen ez dituzten altzariak guri emateko eta geroago saltzeko. Honi gehitu beharko diogu, arriskuak murriztuko direla (segurtasun neurri handiak hartzea) eta negozio-eredua optimizatuko dela. Bestalde, enpresa multinazionalen aholkuak entzungo eta barneratuko ditugu.

